



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 10a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako 2020ko Kontu Orokorreari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, gobernuak premiatzen dira dei egin dezaten gatazka behin betiko amaitzeko Akordioaren alderdi guztiak oso-osorik ezartzera. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da era aktiboan jardun dezan eta zahar-eteetako, eguneko zentroetako eta etxez etxeko laguntza zerbitzuetako langileentzako lan-hitzarmen bat taxutzea bultza dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten pertsonen premiazko zenbait beharrian aintzat har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin elkarlanean aritu dadin Tuterako campuseko prestakuntza-eskaintza indartu eta sendotzeko, Erriberako gazteriak aldarrikatzen duen norabidean, halatan gutxienez ere ezarriz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu berria, bai eta jadanik irakasten den Fisioterapiarekiko gradu bikoitza ere. Osoko Bilkurak ezetsi du (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako 2020ko Kontu Orokorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko otsailaren 3an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2020ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako 2020ko Kontu Orokorrei buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formula-zioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentuari behar zaizkio igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2020ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 157. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onesten dira Nafarroako 2020ko Kontu Orokorrek, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontu Orokorren edukia Nafarroako Atarian ematen da argitara.

Foru Legea, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko otsailaren 3an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzekoa

HITZAURREA

Espainiako Konstituzioak 36. artikuluan ezarzen du lege bidez arautuko direla lanbide elkargoen araubide juridikoari dagozkion berezitasunak eta tituludun lanbideen jarduna. Adierazten du, halaber, elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan behar dutela.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 44.26 artikuluan, xedatzen du Nafarroak eskumen eskusiboa duela elkargo ofizialen eta tituludun lanbideen jardunaren arloetan, legeria orokorrari jarraikiz betiere.

Eskumen horiek erabiliz eman zen Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea, abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez onetsitako erregelamenduz garatua. Bertan ezartzen dira lanbide elkargo bat sortzeko eskaerarako baldintzak eta prozedura.

Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legearen 8. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean lanbide elkargoak foru lege bidez sortuko dira eta beharrezkoa izanzen da horretarako eskaera egitea Nafarroan helbidea izan eta elkargoa sortzeko eskaeraren xede den jardunerako titulazio ofiziala duten profesional gehienek.

Aipatutako arauan xedatutakoarekin bat, eta kontuan izanik Nafarroako Foru Komunitateak lanbide elkargoen arloan bere gain hartutako eskumenak, Itxaso Badell Lizarraga andreak, logopediako 53 profesionalen izenean, Nafarroako Gobernuari eskatu dio Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzeko.

Logopediaren aitortza akademikoa eta prestakuntza-antolamendua ezarrita daude hona-

ko agindu hauetan: abuztuaren 30eko 1419/1991 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baita logopediako diplomadunaren unibertsitate titulu ofiziala, bai eta titulu hori lortzeko ikasketa planei dagozkien jarraibide orokorrak ere; urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baita unibertsitate ikasketa ofizialen antolamendua; eta martxoaren 18ko CIN/726/2009 Agindua, zeinaren bidez ezartzen baitira logopeda lanbidean jarduteko gaikuntza ematen duten unibertsitate titulu ofizialak egiaztatzeko betebeharrak.

Logopedia diziplina bat da, barne hartzen dituena giza komunikazioko nahasmenduen eta ahotsaren, mintzamenaren, hizkuntzaren (ahozkoa, idatzizkoa eta keinuzkoa), entzumenaren eta funtzio orofazialen patologia- eta asaldura-agerpenen azterketa, prebentzioa, ebaluazioa, diagnostikoa eta tratamendua, hala haurrei nola helduei dagokienez.

Osasungintzako lanbide bat da, arautua eta aitortua dagoena (Osasungintzako Lanbideen Antolaketa buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 7. artikulua) eta eginkizun sozial garrantzitsua betetzen duena, logopedak giza komunikazioaren eta haren nahasmenduen eremuetan hainbat zereginetan aritzen baitira osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte ongizatearen arloetan: prebentzioa, detekzioa, administrazioa, ebaluazioa, diagnostikoa, tratamendua, errehabilitazioa, gaikuntza, pronostikoa, orientazioa, aholkularitza, irakaskuntza eta ikerketa.

Azaldutakoa dela-eta, eta kontuan hartuz interes publikoko arrazoiak daudela Nafarroako Logopeden Elkargo bat egoteko, foru lege honen bidez lanbide elkargo hori eratzen da, halako moldez non bertako kide bilakatzea nahitaezko baldintza izanen baita Nafarroan lanbide horretan aritzeko, non eta ez den frogatzen lanbide bereko beste elkargo bateko kidesuna izatea beste lurralde-eremu batean.

1. artikulua. Foru legearen xedea.

Nafarroako Logopeden Elkargoa eratzen da.

2. artikulua. Lanbide elkargoaren izaera juridikoa.

1. Lanbide elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat da, nortasun juridiko propioa duena foru lege honek indarra hartzen duenetik, bai eta bere helburuak betetzeko nahiz bere eginkizunak

aurrera eramateko jardute-gaitasun osoa ere, bere gobernu-organoak eratzen direnetik.

2. Lanbide elkargoak barne egitura eta funtzionamendu demokratikoak izan behar ditu, eta honakoetara moldatu behar du bere jarduna: bere estatutuetan xedatutakoa, foru lege hau, Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eta hura garatzen duen araudia, eta lanbide elkargoen arloko oinarrizko estatu-araudia.

3. artikulua. Lurralde-eremua.

Nafarroako Logopeden Elkargoaren jarduteko lurralde-eremua Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldea izanen da.

4. artikulua. Pertsona-eremua.

Nafarroako Logopeden Elkargoko kide bilakatzeko ahalko dira:

a) Logopediako diplomako unibertsitate-titulua edo graduako unibertsitate-titulua dutenak, bat etorriz abuztuaren 30eko 1419/1991 Errege Dekretuan xedatuarekin, zeinaren bidez ezarri baitzen Logopediako diplomaren unibertsitate-titulu ofiziala eta titulu hori lortzera bideraturiko ikasketaren jarraibide orokorrak, bai eta Unibertsitate-ikasketak ofizialen antolamendua ezartzen zuen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuarekin, eta logopeda-lanbidean aritzeko gaitzen duten unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeko betekizunak ezartzen zituen martxoaren 18ko CIN/726/2009 Aginduan xedatutakoarekin ere.

b) Agintaritza eskudunak behar bezala homologaturiko atzerriko titulu bat dutenak.

c) Europar Batasuneko araudiaren arabera aitorpen profesionala duen titulu bat dutenak, logopeda-lanbidean aritzeko gaikuntza ematen duena.

d) Lehen xedapen iragankorrean ezarritako moduan horretarako eskaera egiten dutenak.

5. artikulua. Nahitaezko kidetzea.

Nafarroako Foru Komunitatean logopeda-lanbidean jarduteko baldintza nahitaezkoa izanen da aurretiaz Nafarroako Logopeden Elkargoan kidetzea, deusetan galarazi gabe Nafarroako lanbide elkargoei buruzko legediak eta estatuko oinarrizko legediak ezartzen dutena.

6. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko harremanak.

Alde instituzional eta korporatiboei dagokienez, Nafarroako Logopeden Elkargoak lanbide elkargoen arloko departamentu eskudunaren bitartez bideratuko ditu Foru Komunitateko Administra-

zioarekiko harremanak. Lanbideari berari dagozkion alderdiei buruzko gaietarako, berriz, arlo horren eskumena duen departamentuaren bitartez bideratuko da harremana.

Xedapen gehigarri bakarra. Lanbide Elkargoen Kontseiluaren eginkizunak.

Nafarroako Logopeden Elkargoak, zeinak izaera orokorra baitu Nafarroako Foru Komunitateko lurralde guztian hedatuta dagoelako, bere gain hartuko ditu, bidezkoa denean, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legeak Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluentzat zehazten dituen eginkizunak.

Lehen xedapen iragankorra. Beste titulu batzuk dituzten profesionalak sartzeari.

Nafarroako Logopeden Elkargoan sartzen ahalko dira, baldin eta horretarako eskaera egiten badute foru lege honek indarra hartu ondoko bi urteko epean, logopediako diploma edo gradua eduki gabe hizkuntza- eta entzumen-nahasmenduen arloan lan egin dutenak edo lan egiten dutenak, egoera hauetakoren batean badaude:

1. Abuztuaren 30eko 1419/1991 Errege Dekretuak indarra hartu aurreko bost urteko gutxieneko epean lanbidez logopediaren arloan jardun dutela frogatzen duten pertsonak, titulu hauetakoren bat badute:

a) Entzumenaren eta ahozko eta idatzizko hizkuntzaren nahasmenduetan espezializatutako irakaslearen titulua, hezkuntzaren arloko eskumena duen ministerioak jaulkitakoa.

b) Hizkuntzaren eta entzumenaren nahasmenduen arloko espezialistaren diploma ofiziala (logopedia), edozein unibertsitatek jaulkia eta ondoren hezkuntzaren arloko eskumena duen ministerioak homologatua.

2. Abuztuaren 30eko 1419/1991 Errege Dekretuak indarra hartu zuenetik logopediako diplomadun ofizialen lehen promozio nazionala aterata 1995eko abenduaren 31 baino lehen logopediaren arloan lanbide-jardunean aritu izana frogatzen duten pertsonak, aurreko paragrafoan aipatzen diren tituluetakoren bat badute.

3. Osasun Zientzien edo Hezkuntzaren arloko unibertsitate-titulu bat, lizentzia bat edo diploma bat daukaten pertsonak, baldin eta frogatzen badute logopediari dagozkion lanetan osasungintzaren esparruan gutxienez hamar urteko lanbide-espereintzia dutela, foru lege honek indarra hartu aurrekoa.

Bigarren xedapen iragankorra. Kudeaketa Batzordea.

Eskatzaileek beren artean aukeratuko dute behin-behineko kudeaketa-batzorde edo gobernu-batzorde bat, zeinak foru lege honen indarraldia hasten denetik sei hilabeteko epean onetsi beharko baititu Nafarroako Logopeden Elkargoaren behin-behineko estatutuak.

Estatutu horietan elkargoaren eratze-batzarra arautu beharko da, batzar horretarako deialdia egiteko modua eta batzarra bera egiteko prozedura zehaztuz.

Hirugarren xedapen iragankorra. Elkargoaren eratze-batzarra eta estatutuak.

1. Elkargoaren eratze-batzarraren deialdiari ahalik eta publizitate handiena ematen zaiola bermatu beharko da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitateko hedapen handieneko egunkarietan argitaratzearen bitartezkoa.

2. Elkargoaren eratze-batzarraren eginkizunak hauek izanen dira:

a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b) Elkargoaren organoetan kasuan kasuko karguak bete behar dituzten pertsonak hautatzea.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, onetsiak izan ondoren, elkargoaren eratze-batzarraren aktaren ziurtagiriarekin batera, igorri beharko zaizkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lanbide elkargoen arloko eskumena duen departamentuari, eta horrek, legezko-tasun-kalifikazioa eman eta gero, aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia presta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko otsailaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia presta dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1. Gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia presta dezan, adituen aholkuak kontuan hartuta eta herritarren parte-hartzearekin.

2. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lan egin dezan, toki-esparruak Eskubide Sozialetako Departamentuarekin batera azter dezan zer jarduketa egin daitezkeen.

3. Behin estrategia hori taxututa jardute-plan bat egin dezan gogoz kontrako bakardadeari aurre egiteko, garrantzi berezia emanik prebentzio-lanari.

4. Jardute-plan urgente bat presta dezan, zein jasoko baitira Zahartze Aktibo eta Osasun-garrirako Nafarroako 2017-2022 Estrategiak ezartzen dituen helburuetarantz aurrerapausoak emateko beharrezkoak diren neurriak”.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, gobernuak premiatzen dira dei egin dezaten gatazka behin betiko amaitzeko Akordioaren alderdi guztiak oso-osorik ezartzera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko otsailaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, gobernuak premiatzen dira dei egin dezaten gatazka behin betiko amaitzeko Akordioaren alderdi guztiak oso-osorik ezartzera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Gobernuak premiatzen ditu, akordioa sinatu zenetik bost urte joan diren honetan, dei egin dezaten gatazka behin betiko amaitzeko Akordioaren alderdi guztiak oso-osorik ezartzera, han bake justu eta iraunkorra egon ahal izateko.

2. Gobernuak premiatzen ditu duda-mударik gabeko babesa eman diezaioten bake prozesuari eta, bereziki, egiarako, justiziarako, erreparazioa-

ko eta errepikapenik ezerako sistema integralari, zeinen parte baitira Egia Argitzeko Batzordea, Bake Jurisdikzio Berezia eta Desagertutzat emandako Pertsonak bilatzeko Unitatea.

3. Espainiako Gobernuak eta Europar Batasuna premiatzen ditu balio demokratikoak interes ekonomiko pribatuen gainetik jar ditzaten eta, hartara, jarrera proaktiboagoa har dezaten eta beren ahalmen diplomatiko guztia balia dezaten Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, Bake Prozesurako oztopoak desagerrarazteko.

4. Espainiako Gobernuak eta Europar Batasuna premiatzen ditu Kolonbian 2022an egin beharreko hauteskunde-prozesuetako nazioarteko begiraleen jardunean inplika dadin, botoen erosketa masiboa –giza eskubideen zenbait erakundek jada salatzen ari direna– eragozteko eta ezagutarazteko”.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da era aktiboan jardun dezan eta zahar-etxeetako, eguneko zentroetako eta etxez etxeko laguntza zerbitzuetako langileentzako lan-hitzarmen bat taxutzea bultza dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko otsailaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da era aktiboan jardun dezan eta zahar-etxeetako, eguneko zentroetako eta etxez etxeko laguntza zerbitzuetako langileen-entzako lan-hitzarmen bat taxutzea bultza dezan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen du era aktiboan jardun dezan negoziazioan eta hitzarmena lehenbailehen taxutzea bultza dezan.

2. Patronalari exijitzen dio langileen ordezkariekin eskuz esku lan egin dezan hitzarmenaren garapenean aurrerabidea egiteko.

3. Aintzatetsi egin nahi du sektoreko profesionalen egindako lana, eta hartara helarazi nahi die bere elkartasuna eta babesa dutela eta prest dagoela sektoreko lan-baldintzak hobetzea sustatzeko eta aldezteko.

4. Eredua aldatzearen alde lan egiteko konpromisoa duela dio; halatan, pertsona erdigunean jarriko duen eredia garatuko duten kalitatezko zerbitzu publikoak hobetzea, handitzea eta ezartzea bultzatuko du.

5. Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen onets eta lizita dezan orain indarrean dena ordeztuko duen esparru-akordio bat, egoitzetako plazak, eguneko egonaldiak eta autonomia sustatzeko zerbitzuak kudeatzeko".

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten pertsonen premiazko zenbait beharrian aintzat har ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko otsailaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten pertsonen premiazko zenbait beharrian aintzat har ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1. Umetokiaren lepoko minbiziaren detekzio goiztiarreko populazio-programa bat abiaraz dezan, gehienez ere bi hilabeteko epean.

2. Berreskura dezan bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programetan azken bi urteetan izandako atzerapena, gehienez ere sei hilabeteko epean.

3. Tresnak eta baliabideak eskaini ditzan Nafarroan minbizia dutenei arreta integratu eta integrala bermatzeko.

4. Nafarroan gaixo onkologikoendako arreta jarraitua ezar dezan, gehienez ere bi hilabeteko epean.

5. Nafarroan minbizi hereditarioa duten pertsonen arreta goiztiarreko programa bat prestatu

eta ezar dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

6. Zerbitzuen zorroa ezar dezan bermatze aldera minbizia dutenendako medikuntza pertsonalizatua abiarazten dela, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

7. Zorro osagarrian sar ditzan tratamendu onkologikoaren ondoriozko aho-hortzetako arreta eta prestazioak, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

8. Aratu dezan dieta eta egonaldirako prestazioen igoera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalek bidalita Osasun Sistema Nazionalako ospitaletan kontsulta jaso eta ospitaleratu behar duten haur nafarren bi guraso edo seniderendako, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

9. Zaintzaileari laguntza emateko programa bat prestatu eta abiaraz dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

10. Minbizia duten gaixoei arreta integratua emateko prozesuen ebaluazio integralerako sistema bat prestatu eta abiaraz dezan, gehienez sei hilabeteko epean".

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin elkarlanean aritu dadin Tuterako campuseko prestakuntza-eskaintza indartu eta sendotzeko, Erriberako gazteriak aldarrikatzen duen norabidean, halatan gutxienez ere ezarriz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu berria, bai eta jadanik irakasten den Fisioterapiarekiko gradu bikoitza ere.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko otsailaren 3an egindako bilkuran, ezetsi du Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu zuen mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPekin elkarlanean aritu dadin Tuterako campuseko prestakuntza-eskaintza indartu eta sendotzeko, Erriberako gazteriak aldarrikatzen duen norabidean, halatan gutxienez

ere ezarriz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu berria, bai eta jadanik irakasten den Fisioterapiarekiko gradu bikoitza ere. Mozioa 2022ko abenduaren 1eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

